

Gaupasa

IÑAKI SEGUOLA



HITZ ederrak zabaldu genituen behinola euskarren mugetatik haratago: 'akelare', 'ezker'; baina bai ongi maxkalduak izuli dizkigula arrotz eskerbeltzak; akelarrea emojakintsuen jostailu idor bihurtua eta ezker-rra, denik mojatxo gajoena edo exekutibo estuena ere ikaratzeko gauza ez dela.

Gure asmaziotan erortzen azkena 'gaupasa' izan da. Galdutako gauak desordua eta desordena; ezkatuta da gauraren misterioa urratzera menturaten ziren gaurtxoren arraza bekatukoak. Merkatuak bete du gaua, diruaren mugitu-behar itoak ez baitu gau-egunen etnik ezagutzen. Lan-egun elkorrena bezain arautua eta egitarautua utzi du Garapenak gaualdi ustez basatiena ere. Lehenengo gaurtxori bakanen sasi-onordeko diren gaupaseroen samaldari, usetekabeko gau-festa etengabe gau-lan bilakatu zaio. Bateik latura: «bat, bat, bat, parrandan ibili bat» kantatzen zuten lehen, eta orain, al-diz, «lau, lau, lau, larrutan del bakalau» (apenas gehiegi egiten den, droga sintetiko eta dantza analitikoaren ekaizpean). Hori aski ez dela, edozein herriatko festen programan joko duzue begiz gaupasa ofizialaren egitaraua, manifestazio ordenatuak, prozesioak eta toreroketak (Azpeititik ari naiz) bezain artasuki antolatua.

Behin batean munduari 'langile jauna' esaten erakutsi zion Volkswagen L. Derriortuak adierazi zuen ez zela gaupaserok in aterramentu onik. Ez nion exekutibo burutsuaren antzik hartu. Norbaitek honuzkero esan izango dio gaupaseroren bixaje bentzutan Ongizatearen martiri baten piura ikusten ikasi beharra duela: 'gaupasero jauna'. Batera ez harritu: gaur 'VW Pink Floyd' auto-modeloa atera duen enpresak 'VW Gaupasa' atera dezake bihar.

Agian balegoke lau gaupasa erabat egitea baino azio hobirik. Asmatu egin behar.

Sin perjuicio de la Unidad Constitucional

TXILLARDEGI



HORRELA lortu zen Bergarako Besarkada. Eta gerotik Estatuak ez du ezertan ere aldatu bere trukua: «Tengamos paz; pero sin perjuicio de la sacro-santísima

Unidad Constitucional». Orain ere berdin egin digute. Baina, egurra besterik ez jasotzen, erreparatu ere ez dugu egin!

Joan den ekainaren 25ean 'nulidad radical' delakoaz ezeztatu dute UEMA Elkarteak sortu zuten Erabakia. Eta euskara hutesz ibiltzeko erabakia hartua zuten euskaldun udalek, legez segitzeko aukera galdutako gabe.

Oraindik ederragoa: euskara hutesz bizi ahal izateko eskubide horren kontrako erabakia, 'Tribunal Superior de Justicia del País Vasco' delakoak hartu baitu!

Arazoa lehenagotik zertokigun, Espainiako Tribunal Constitucionalak erabaki baitzuen orain dela zortzi urte, euskara hutesz bizi nahi izatea legetik ar dagoela (1986; 82. Espainia).

Etxenike-ren garaiak 'Erabilpena arauko-izteko legea' (1982) ezeztatu egin zuen Madril-ek: «Los poderes publicos podrán hacer uso exclusivo del euskera para el ámbito de la Administración Local, cuando en razón de la determinación socio-lingüística del municipio, no se perjudiquen los derechos de los ciudadanos» (Art. 8.3). Ez!

Tribunal 'hark-ak' berriro gogorazi digu geure morrontza osoa joan den ekainaren 25ean: Udai mailan ere (zer esanik ez horik gora) legala da erdara hutesz ibiltzea; baina legetik ar dago euskara hutesz bizi nahi izatea.

Hori hor, argi-eta-garbi, bi maila eta bi gizar mutzo: «la lengua indispensable y la lengua dispensable». Aracilen hutesz esateko.

Ez da marko berria: 1839an Bergaran inposatu zitzaiguna besterik ez da... «Haceos españoles: el resto se os dará por añadidura».

HEMEROTEKA

EL MUNDO

Batasuna ETaren terrorearen aurrean

Atentatua Estatuaren bihotzaren kontrako izan da: teniente jeneral bat. Defentsa Ministerioaren politikaren euskarri garrantzitsua. Eta horregatik Estatu osoari dagokio erantzutea lasaitasun-ean oinarrituta. Begien bistakoa dirudi Armadari eta gainontzeko erakundeek egindako probokazioa izan dela. Gobernuak presoak kartzelatik ateratzeko aurrera daraman politikaren aurka ager daitezzen egindakoa. Ez da tranpan erori behar. Batasuna ezinbestekoa da. Edozein arraidura mota ETaren mesederako baino ez da. Borroka armatuari uko egin ditonen bergizartertzak kalte handia egin dio ETari, preso-ko kolektiboa kontrolatzeko gaitasuna gaitzak bere estrategia ahultzen duelako. Besterik da Belloche bere

kabuz jardun eta esperimentu arriskutsu bat egin izana Amedo askatzeko koartada bat bilatzearen; hori berehala zuzendu beharrekoa du.

EDITORIALA

EL DIARIO VASCO

Krisia nazionalismoan?

Euskal nazionalismoak indarra eta heldutasuna erakutsi lortu zuenean bai eskuneko bai ezkerreko izateko nazionalisten eskubidea aldarrikatzen zuten ezkerreko alternatiba bat planteatzea, euskal ezker nazionalaren adierazpide hori lehenengo autonomismorantz lerratu zen eta, azkenik, bat egin zuen sozialismo estalarekin. Gehiago ere badago: Euskadiko Ezkerra hartan bategitearen aurka azaldu zen zatiak egun, duten boz koalifikatuenetako baten ahotik, nazionalismo demokratikoa alderdi bat



- Ez dizu lotsarik ematen Amedo eta Dominguezak? - Tira. Pixka bat bai. Izan ere, ezin izan ditut lehenago askatu. LOPEZ & PEREZ / EGIN

baino gehiago egoteko arrazoirik ez dagoela aldarrikatzen du.

Aldarrikapen ezkertiarrez, euskal eskuin nazionala ordezkatzeko uesteko alternatibaz egindako historia osoa, hala nola duela gutxi ari behin eta berriro azaldu duten asmoa Eusko Alkartasunaren batera eskuin nazionalistari aurre egiteko aurrerapezko alternatiba bat konparatuzeko, hori guztia aienatua

gelditu da ezkerrean eta eskuinaren anteko desberdintzenak desagertu diren eta euskal kontzientzia nazionala mantentzen dutena kasuan irtenberdik egokiena alderdi bakarra den baieztape harri-garia egin baitute...

Nolanan, ez da hedatuko nahasketa eta abstentzioa nazionalismoaren baitan horrelako metamorfosiak ikusita?

CARLOS GARAIKOETXEA

LUZENDARIARI

Agur eta ikusi arte

Ez pentsa Orkatz kultur taldea desegiterra goazetik, baizik eta zenbait kultur pertsonaia agurtzera bait goaz.

Azpeitiarrok dakizutenez, Orkatz kultur taldeak lehen urtemuga jadanik bete du eta ekinza ugari ere antolatu urtean zehar, baina badirudi ez garela Azpeitiko Udai Kultur Batzordearen gustoko zeren. «1994ko dirulaguntza eskatzeko» deialdiari jarraituz geure eskaera luzatu genien eta hara hor erantzuna: «Orkatz taldeak arkeztu duen eskaera dossiera azertu ondoren, batzordeak talde honen izakera eta partaidetza orokorrak eta zabalagoa dela estimatu du. Beraz, Azpeitiko herriarentzat antolaturiko zenbait kultur ekinza puntualetan Udai Kultur Batzordeak lagunduko dizue, baina gai bakarreko talde kultural bat bezala ez duzue dirulaguntzarik jasoko».

Nolanahi ere ez dugu dirulaguntzarik jaso ez era batera zein bestera. Pentsatuko duzuen bezala argudio ho-

nekin ez gatoz bat, zeren Orkatz kultur taldearen helburua gaitzen problematikaren inguruan kultur ekinzak antolaten edo aztertzen saiatzea baita, eta horregatik arlo ezberdinetatik aztertzen ditugu. Orkatz kultur taldearentzat adrebasa izango lizateke arlo hauetakoa bat bakarra lanterra mugatzea, beste guztiak aparte utzita.

Zer gertatuko lizateke ukitzen ez ditugun gaiekin? Agian, Udai Kultur Batzordea saiatuko lizateke gai hauek aztertzen ala?

Orkatz kultur taldeak azken urtearen zehar musika kontzertu pila bat, filme batzuz, hiru ihardunaldi (Intsumisioa, presoak, HIESA), mimo eta poesia emanaldiak eta abar... (gutxi gora-behera 600.000 pezetako ekinzak) antolatu ditu.

Beraz, ez dago dudarik Azpeitian gazteentzako kultur-eskaintza hobetzen lagundu dugula.

Orkatz kultur taldearen uestez kultur talde bakoitzak erabaki behar ditu zeintzuk diren bere helburuak, eta Udai kultur

Batzordeak aldez, laguntza eskaini Taldeek eskaintzen dituzten ekinzen arabera, zeren badirudi argudio maltzur honen atzean diskriminazioa estaltzen (ezkutatzen) dela. Orkatz kultur taldearekin eta, hau ezin dugu onartu.

Hau baitirudi herriaren alde, etsi gabe eta ilusioz lanean ari garenontzat Udai Kultur Batzordearen esker ona.

Hanka sartzeak barkatzen ditugu baina ez ahaztu.

Azkenik, Azpeitiarroei esan Orkatz kultur taldeak ekinza ezberdinak antolatzen eta aztertzen jarraituko duela ahal den neurrian behintzat, eta Udai Kultur Batzordeari eskertuko gemoke beste jokatibide batzuk agertuko balituzke ez gurekin bakarrik Herriko talde guztiekin baizik.

Oraindik, Orkatz kultur taldeak oprak hartzen ditu.

Ondo pasatu!

ORKATZ KULTUR TALDEA
Azpeitia (Gipuzkoa)


GAIA JARRITA



Abuztua

Abuztu deuna badator eta bada zerbaiten aukera: etxeik irten mendi puntara ta gero itsas-ertzera, hamar kiloko txitxarro zahar bat ekariko du etxera; hauek guztiak egingo ditut askoz gehiago gainera ueste baino lehen ez bada heletzen abuztuko bukaera.

FELIX AIZPURUA



Batzorde Patekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90



ODI: IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorealeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDIA

Kontseilari Ordezaria: IÑAKI URIA

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: MARTXELLO OTAMENDI

Zuzendariordeak: LUZIAN ETXEZAHARRETA

Publizitate: MARI JOSE SAEASA

HELBIDEAK

Erredakzio eta Talerria: ANTZA S.A. Induslariak 03-02 Pabilloak 7

20100 Lasane-Oria / 47.15.45 / Faxa: 36.54.93

Egokiza soziala, Publizitate eta Administrazio: Antzo Jakintza

16-1 / 20010 Domostia / 46.90.22 / Faxa: 45.50.57

Araba: San Antonio, 20.1. Leke / 01005 Gasteiz / 21.58.72 / Faxa: 23.28.79

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45.13.58 / Urtzieta (Iruia) / 31011 Iruia

/ 17.80.7879 / Faxa: 17.80.77

Bizkaia: Zabalburu Ekiparantza, 2.1. Leke / 48003 Bilbo

/ 410.40.46 / Faxa: 410.37.15

Lapuri / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Pameau 14.1.503 Posta

Kutxilla / 64100 Barceña / 59.59.35.75 / Faxa: 59.25.75.11